LEGAZPIKO
UDALA

| GABONETAKO ERAKUSLEIHO LEHIAKETA 2024 OINARRIAK | CONCURSO ESCAPARATES DE NAVIDAD 2024 BASES |
|---|---|
| 1. Legazpiko denda guztiek dute lehiaketan parte hartzeko aukera. Parte hartu nahi duenak izena eman beharko du aldez aurretik. Parte-hartzaile bakoitzak 50 €-ko laguntza jasoko du materiala eta argindarra ordaintzeko. | 1. En el concurso podrán participar, previa inscripción, todos los establecimientos comerciales de Legazpi. Cada participante recibirá una ayuda de 50 € para costear los gastos de material y luz. |
| 2. Lehiaketan parte hartzeko izen-ematea honela egin daiteke: udaletxeko beheko solairuan dagoen Herritarrentzako Arreta Bulegora joanez; 943 737030 telefono-zenbakira deituz edo Udalaren Web orrian (https://www.legazpi.eus/), “Albisteak” atalean agertzen den datu-orria betez**. Izena emateko azken eguna azaroaren 29a izango da, 15:00etan**. | 2. Las inscripciones para participar deberán remitirse al Servicio de Atención Ciudadana (planta baja del Ayuntamiento), llamando al número de teléfono 943 737030 o cumplimentando el formulario que aparece en la página web del ayuntamiento https://www.legazpi.eus/ (apartado de “Noticias”). **La fecha límite de inscripción es el 29 de noviembre a las 15:00h**. |
| 3. Erakustaldia **abenduaren 9an hasi eta urtarrilaren 6ra arte** luzatuko da, biak barne, eta erakusleihoa lehenengo egun horretarako egon beharko da jarrita. | 3. Las fechas de exhibición estarán comprendidas **entre el 9 de diciembre y el 6 de enero**, ambas inclusive, debiendo estar montado el escaparate para la primera de las fechas. |
| 4. Saria nori eman erabakitzerakoan honakoak hartuko dira kontuan: irudimena, orijinaltasuna eta publizitate-mezuak ikusleengan duen eragina. Modu berean, parte hartzen duen erakusleihoaren kalitatea eta Gabonetako giroarekin duen lotura baloratuko dira. | 4. Para la concesión de premios se tendrá en cuenta la imaginación, originalidad y efectividad del mensaje publicitario, así como la calidad del escaparate concursante y su vinculación al ambiente navideño. |
| 5. Erakusleihoetan, batik bat, dendan saltzen ohi diren artikuluak jarriko dira. | 5. En los escaparates deberán figurar predominantemente artículos de venta habitual en el establecimiento. |
| 6. Erakusleiho guztietan ikusteko moduan jarriko da lehiaketan parte hartzen duela adieraziko duen agiria. Agiri hori udaletxeak eskainiko die denda parte-hartzaileei. | 6. En todos los escaparates deberá estar visible el distintivo acreditativo de su participación, que será facilitado por el Ayuntamiento. |
| 7. Epaimahaia erakusleihoak dekoratzen eta merkataritzarako aholkularitzan adituak diren pertsonek osatuko dute. | 7. El jurado estará compuesto por personas expertas en decoración de escaparates y asesoramiento al comercio. |

Legazpiko Udala • IFK: P2005500J • Euskal Herria plaza, 1 - 20230 LEGAZPI • 943 73 70 30 • 943 73 72 00 • haz@legazpi.eus • www.legazpi.eus

CSV: 07E800080BC200H7M2S7T7M8A1L6B2C5C8B8J4J9

LEGAZPIKO
UDALA

Dokumentu hau egiazkoa dela
07E800080BC200H7M2S7T7M8A1L6B2C5C8B8J4J9
kodearekin egiazta daiteke
ondorengo Entitatearen Egoitza Elektronikoan

SINATZAILEA - DATA
LEGAZPIKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE LEGAZPI(P2005500J-LEGAZPIKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE LEGAZPI) - 21/11/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 21/11/2024 10:16:41

EXPEDIENTE :: 2024LIBR00031
Esp.Data: 14/11/2024
Ordua: 00:00
Und. reg: REGISTRO GENERAL

8. Epaimahaiak hiru sari hauek emango ditu:

   Lehenengo saria: Plaka eta 500 €.

   Bigarren saria: Plaka eta 300 €.

   Hirugarren saria: Plaka eta 200 €.

   Herritarren saria: Plaka eta 200 €.

9. Legazpiarrek emango dute herritarren saria, bozketa bidez. Boto gehien lortzen dituen erakusleihoa izango da sari horren irabazlea.

   Herritarren saria Internet bidez aukeratuko da.

   Udalaren Webguneko iragarki-bandan (bannerrean) eskuragarri egongo den formularioan sartuta eman ahal izango da botoa. Botoa eman nahi dutenek zuzenean Web orrian bertan eman dezakete, beren kabuz, edo Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan (Udaletxeko beheko solairuan).

   Herritar bakoitzeko boto bakarra onartuko da.

   Herritarren saria aukeratzeko bozketan parte hartzen duten pertsona guztien artean 100 euroko bonu bat zozkatuko da, lehiaketan parte hartu duten saltokietan gastatzeko.

10. Erabakia apelaezina izango da eta 2024ko abenduaren 18an jakinaraziko da.

11. 100 euroko bonoaren zozketa udaletxean egingo da, abenduaren 18an.

12. Udaleko langileak irabazleekin harremanetan jarriko dira, sariak emateko modua adosteko.

13. Saritutako pertsona adingabea bada, saria jasotzeko unean aitarekin, amarekin edo legezko tutorearekin bertaratu beharko da.

14. Udalak eskubidea izango du irabazlearen izena eta irudia bere egoitzan, webgunean

8. El jurado concederá los siguientes tres premios:

   Primer premio: Placa y 500 €

   Segundo premio: Placa y 300 €

   Tercer premio: Placa y 200 €

   Premio Popular: Placa y 200 €

9. El premio popular lo concederá el público legazpiarra, mediante votación. El escaparate que obtenga más votos será el ganador.

   La participación en la elección del premio popular se realizará a través de internet.

   Se podrá votar accediendo al formulario que estará disponible en el banner de la página web del ayuntamiento. Las personas que quieran votar podrán hacerlo directamente en la página web por sus propios medios, o en el Servicio de Atención Ciudadana (planta baja del Ayuntamiento).

   Solo se aceptará un único voto por persona.

   Entre todas las personas que participen en la elección del premio popular se sorteará un bono de 100 euros para gastar en los comercios participantes en el concurso.

10. El fallo del jurado será inapelable y se hará público el 18 de diciembre de 2024.

11. El sorteo del bono de 100 euros se realizará el mismo día 18 de diciembre.

12. Personal del Ayuntamiento se pondrá en contacto con las personas ganadoras para acordar la forma de entrega de los premios.

13. En el caso de que la persona premiada sea menor de edad, en el momento de recibir el premio deberá personarse con padre, madre o tutor legal.

14. El Ayuntamiento se reserva el derecho a comunicar tanto en su sede, en su página

Legazpiko Udala • IFK: P2005500J • ✉ Euskal Herria plaza, 1 - 20230 LEGAZPI • ☎ 943 73 70 30 • 943 73 72 00 • haz@legazpi.eus • www.legazpi.eus

Legazpiko Udala • IFK: P2005500J • Euskal Herria plaza, 1 - 20230 LEGAZPI • 943 73 70 30 • 943 73 72 00 • haz@legazpi.eus • www.legazpi.eus

edo sare sozialetan jakinarazteko eta zaballtzeko.

15. Lehiaketan parte hartzeak oinarriak onartzea dakar.

## DATUEN BABESA

Bildutako datuak LEGAZPIKO UDALAREN (IFK: P2005500J; helbidea: EUSKAL HERRIA PLAZA 1, LEGAZPI, GIPUZKOA) 3.1.1 KULTURA-JARDUERAK tratamendu-jardueran sartu eta tratatuko dira, dpd@legazpi.eus helbide elektronikoarekin. Eraginpeko pertsonek haien datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta transferitzeko, datuen tratamendua mugatzeko eta tratamenduaren aurka egiteko eskubideak baliatu ahal izango dituzte haren aurrean.

Tratamenduaren helburua zozketa kudeatzea eta zozketa zabaldu eta sustatzea da. Datuen tratamendua zilegi da interes publikoaren arabera eta Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen arabera.

Datuak ezin izango zaizkie hirugarrenei laga, datu pertsonalak babesteko indarrean dagoen araudian aurreikusitako kasuetan izan ezik, eta legez ezarritako epean gordeko dira.

Nolanahi ere, eskubidea duzu Datuak Babesteko Euskal Bulegoan erreklamazio bat aurkezteko, zure eskubideak erreklamatzeko, hemen: https://www.avpd.euskadi.eus/modelos-para-el-ejercicio-de-derechos-y-modelos-de-reclamaciones/s04-5250/es/

## OINARRIEN GORDAILUA.

Oinarriak Legazpiko Udalaren webgunean egongo dira eskuragarri (www.legazpi.eus)

web, o en sus cuentas de redes sociales el nombre y la imagen de las personas ganadoras.

15. La participación en el concurso supone la aceptación de las bases.

## PROTECCIÓN DE DATOS

Los datos recabados serán incorporados y tratados en la actividad de tratamiento 3.1.1 ACTIVIDADES CULTURALES responsabilidad del AYUNTAMIENTO DE LEGAZPI con CIF P2005500J sito en EUSKAL HERRIA PLAZA 1, LEGAZPI (GIPUZKOA) y con dirección de correo electrónico dpd@legazpi.eus ante quien las personas afectadas podrán ejercer sus derechos de acceso, rectificación, supresión y portabilidad de sus datos, de limitación y oposición a su tratamiento.

La finalidad del tratamiento es la gestión del sorteo y de su difusión y promoción. El tratamiento de datos queda legitimado en base al interés público y a la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las bases del régimen local.

Los datos no podrán ser cedidos a terceros salvo en los supuestos previstos en la normativa vigente sobre protección de datos de carácter personal y serán conservados durante el plazo legalmente establecido.

En cualquier caso, tiene derecho a presentar una reclamación ante la Agencia Vasca de Protección de Datos para reclamar sus derechos en https://www.avpd.euskadi.eus/modelos-para-el-ejercicio-de-derechos-y-modelos-de-reclamaciones/s04-5250/es/

## DEPÓSITO DE LAS BASES.

Las bases estarán disponibles en la página web del Ayuntamiento de Legazpi (www.legazpi.eus)

CSV: 07E800080BC200H7M2S7T7M8A1L6B2C5C8B8J4J9

LEGAZPIKO UDALA

| Dokumentu hau egiazkoa dela 07E800080BC200H7M2S7T7M8A1L6B2C5C8B8J4J9 kodearekin egiazta daiteke ondorengo Entitatearen Egoitza Elektronikoan | SINATZAILEA - DATA<br>LEGAZPIKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE LEGAZPI(P2005500J-LEGAZPIKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE LEGAZPI) - 21/11/2024<br>CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 21/11/2024 10:16:41 | EXPEDIENTE :: 2024LIBR00031<br>Esp.Data: 14/11/2024<br>Ordua: 00:00<br>Und. reg: REGISTRO GENERAL |
|---|---|---|